

**AMARGARREN MENDEKO IDAZKIETAN
EUSKAL-IZENEN IDAZKERA
(«Gipuzkoa» izena)**

Asi gaitzen gaur, mende orren lenengo laurdeneko larruko batetik, mende ortako izenen azterketa. 1025'garren urteko larruki bat da; ospe aundiko larrukia, bertan agertzen bait da aurreneko aldiz Gipuzkoa'ren izena. Anitz aldiz izan da, orregaitik larruki au, anitz gizonek aztertua.

Ema'ogun guk ere ikustune labur bat.

Tolosa'ren ingurua du gai, larruki orrek; baiña Tolosa beraren izenik ez du aipatzen. Ez ote zan oraindik Tolosa'rik? Ez beintzat gaur izen orrekin ezagutzen dugun uri arresiturik.

Arreziz inguratutako Tolosa'ren aurretik, toki artan zeuden baserriz osotutako erriak, zer izen ote zuan? Ez dakigu. Eta idazki onek ez digu ortaz, argirik ematen.

Larruki onek, ematen digu, alderantziz, Gipuzkoa'ko lenen Jaunaren izena: Garzia Aznarena. Eta baita bere emaztearena ere: Gaila.

Ez da erreza Araba'ko lenen Konteak eta Bizkai'ko lenen Jaunak zer izan ziran jakitea. Emen, seguruaski, Naparroa'ko Erregearen Ordezkarik bat besteriz ez zan. «Sub imperio», ots IV. Santxo Naparroa'ko Erregearen «agintaritzapean» dala Aznarena Gipuzkoa'ko Jaun, Erregeak berak bait diosku.

«...ego quidem Sancio rex regnans in Pampilonia et sub imperio senior Garcia Acneriz de Ipuscua». Aznar, latinez, Acenariz esan oi zuten abizen lez, eta AZENAR; izen bezala. «Acenariz», eta «Azanarez», «Aznarena» dira, «Martinez» «Martíñena» dan bezala.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lenen «Jaun» eta «Konte» aiek, Erregearen Ordezkariek ziralda esan dut, ots, gaurko probintzietan jaurle edo gobernadoreak dirana. Eta badut ori esateko oiñarri tinkoa, jaun eta konte aiei Naparroa'ko Erregeak «tenentes» esaten bait zieten. Eta gauza jakina da erdiaroar-laterazko «tenente-k eta gero gaztelerazko «teniente-k orixe esan nai dutela: «ordezkari». Oroi «teniente-cura», «teniente-alkalde»... Gudarozteko «teniente-ari» ere, asieran, «teniente-capitan» esaten zitzaion, kapitanaren ordezkari bat besterik ez zala adierazteko.

Larruki onen bidez, Gure Aznar arek eta bere emazteak, Aroi-goi'en dagoan Peña'ko Donibane-Lekaidetxeari, gaurko Altxo'n zegoen Usoa Donearen lekaidetxea ematen diote. Gaurko Altxo'ri berriz OLLAZABAL esaten diote: «Sub nomine Sancte Trinitatis, ego quidem senior Garcia Acenariz et domina Gayla, pro remedio anime nostre, tradimus Deo donante ad monasterium Sancti Iohannis Baptiste de Pinna, illud monasterium quod dicitur Ollazabal».

Euskeraz: «Irutasun Deunaren babespean nik Garzia Aznarenak eta Gaila nere emazteak, Jainkoa lagun Donibane Batailariaren Piña'ko lekaidetxeari Ollazabal deritzan lekaidetxea damaiogu». Beeraxeago, Ollazabal'ko lekaidetxe ori «Sancte Columbe» edo «Uso Donearena» zala dioskute, Garzia Aznarena'k eta Gaila bere emazteak.

Ikus orain larruki zar onek damaizkigun toki izen guztiak:

PINNA	OLLAZABAL	GAHARRAGA	ORER
URRTE	ALUIZT	LASKUREN	URRE
AINARTE	AREIZNABAR	ARZAGUDUM	VERASIBIA
HARALARRE	HEZIZAZUAL	HEZIZARAY	ARRANDARI
UGARTE	ZUHAZNABAR	OSSAUJO	HAYA
HELCANNO	EZQUIAGA	ITURRIOZ	GURTIA
PAMPILONIA	ARROZUIDE	IPUSCUA	URRA

NARRIATEIZ

Esan dugun bezala, larruki onen bidez sartzen zaigu Gipuzkoa edestiaren barrutira. Bedi beraz Gipuzkoa, aurrena aztertzen dugu izena:

IPUSCUA. Au da Euzkadi'ren biotzean aurkitzen dan Laterriaren lenen izen idatzia. Ez dio luzaroan iraungo, 25 urte geroago, Garzia Aznarena beraren emazteak, Gaila Andreak, IPUSÇCHA, izen bait damaio.

Ona, Gipuzkoa'k edestiaren ibilleran izan dituan izenak:

-IPUSCUA. 1025'ean. «...ego senior Garcia Acenariz de Ipuscua».

-IPUÇCHA. 1048'an. «Ego humillima Galga de Ipuçcha». (Orrella, «s»ren ordez «ç» erabilliaz). GALGA au, lengo larrukiko GAYLA bera duzu. Ez aztu, latinez «CH» gure «K» bezala aoskopatzen zala. Ortaz, Ipuçcha ori, IPUSKA, irakurri bear dugu.

-IPPUZKA. 1049'an. «...domna Galga, ez regione Ippuzka». (Bi «PP», eta «S» edo «C» ez baiña, oraingoan, «Z» erabilliaz, eta «CH»ren ordez, «K»).

Nola deitu nai ote zion gure Andre ark, -iru dokumentuetako emakume au bat bera bait da-, nola deitu nai ote zion Andre ark gure Gipuzkoa'ri?: IPUSKA, ala IPUZKOA.

GIPUZKOA zan ezbairik gabe, Eusko-Laterri aren izena. Ordu-rako «Z» doiñua «S» biurtzen asia ote zan ba? Ez noski:

Euskeraren «Z» ez da Laterazkoa eta geroagoko gaztelerazkoa bezalakoa, izkuntza oietako erdi «z» eta erdi «s» baizik; eta, orregaitik, ez zuten lumalari zar aiek gure «z» nola idatzi asmatzen. «Z» erabiltzen zuten batzuetan, «Ç» beste batzuetan. Eta, naizenik, «S».

-IPUZKA, 1056'az gero larruki batean. «Et ego Blasquita, filia de donna Galga et de senior Garcia Azenarez, confirmo ad istum locum Sancti Iohannis... monasterio Sancti Salvatoris de Ipuzka». «Nik, Blaskita'k, Galga andrearen eta Garzia Aznarena'ren alabak, bir-damaiot, Donibane'ren leku oni, Ipuzka'ko Salvatore Donearen lekaidetxea».

Larruki au noizkoa dan, ez dakigu. Baiña bai, 1049'garren urteaz gerokoa dala. Larruki ontan andre eta jabe lez agertzen zaigun Blaskita onek jabetza, bere ama il da ondorean artu zuala, bait diosku larruki onek berak «Mortua est et suprafata domina Galga, et succesit in loco eius filia illius domna Blasquita».

Euskeraz: «Illa bait da len aipatutako Galga andrea, bere alabak, Blaskita'k, artu du aren ondarea».

-IPUZCOA; 1066'ean; Naparroa'ko IV Santxo'k Leire'ko lekaidetxeari egindako emaitza batean: «D. Orbita Aznarez en Ipuzkoa... testis». Don Orbita au, agertzen da, lekuko bezala, Errege onen beste larruki batzuetan ere, baiña Gipuzkoa'ren aipurik egin gabe. Nor ote zan bera? Ez beintzat Garzia Aznarena'ren eta Galga'ren semea, aiek alaba bat besterik ez bait zuten izan: goraxeago aipatutako Blaskita.

Gipuzkoa'ko «jaun» ote zan? Ala izatekotan, bera dugu, Gipuzkoa'ko bigarren «Jaun» edo «Tenentea».

-1085. IPUZCOA, Leire'ko larruki-bilduma'n: «Senior Fortun Azenariz de Ipuzkoa, testis»: «Ipuzcoa'ko Fortuna Aznarena, lekuko». Ez dakigu Fortun au ere nor izan zan, baiñan bai ez zala Gipuzkoa'ko «Jaun» edo «Tenente» izan. Zergaitik?

Arabar batzuen artean agertzen dalako, eta arabar oiei danei, «jaunak» esaten zaielako, naiz errikoxkor txikietakoz gizasemeak izan: «Senior Garsea Fortunionis de Zurbano, testis», adibidez. Ziurki, toki-izen oiek gizaseme aien jatorria adierazten digute, ez gizaseme aien jauntza. Onela irakurri bear dira beraz: «Zurbano'ko Garsea Fortuño'rena Jauna», «Gipuzkoa'ko Fortun Aznarena Jauna»... «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco»k, 1085'eko Ipuzkoa ori, IPIZKOA damaigu. Gaizki dago. Irarkolatiko utsegite bat izango da.

-1083, Kukulla'ko Donemillian'en lekaidetxekeo larruki batean. «Alfonsus rex imperante tota Hispania, comite Lope Ennecones in Bizkaia et Alaua et Ipuzcoa». (Orrelaxe: Bizkaia «K»z, Ipuzcoa, «C»z).

-1088. Iratxe'ko larruki batean Lope Enekorena'k berak oraingoan bere izena latera'z idatziaz: «Comes Lupus dominans Alaua et Bizcaya, («C»z), et Ipuzcoa».

-1091. Kukulla'ko Donemilian'en, «comes» edo «konte» berak: «Comes Lope dominante Bizcahan et Ipuzcuan»; («U»z).

Lope edo Otxoa Eneko'rena au, Bizkai'ko bigarren Jauna dugu; 1076'ean ildako Eneko Loperena Bizkai'ko lenen Jaunaren semea. Ikusi dezakezunez, bere dokumentuetan, gure Bizkai, bi aldiz «H»tik gabe agertzen zaigu eta bein «H»rekin. Zer dala-ta? Lumalari zar aien axolagabekeria! Orixe besterik ez dala-ta...!

Lope Enekorena, Bizkai, Araba, eta Gipuzkoa'ko Jaun agertzen zaigu, Gaztela'ko VI Albontsa'k egin zion emaitzari esker. Emaitza orren arrazoa?

1076'ean izan zan Naparroa'ko IV Santxo bere senideek Len izeneko aitzean erailla. Une artan, Naparroa gaixoaren gaiñera jausi ziran Aragoi'ko Santxo I'a eta Gaztela'ko IV Albontsa. Biak ziran IV Santxo'ren lengusuak.

Piztu zan gudua, eta gudu artan Bizkai'ko Eneko Loperena'ren seme bat, gazteena, Fortun, Aragoi'ko Santxo'ren alde ipifin zan; Gaztela'ko Albontsa'ren alde berriz beste irurak: Garzia, Galindo, eta gure Lope au, Eneko'ren semerik zarrena.

Bere esker ona agertzeagaitik eman zion Albontsa VI gaztelarrak Bizkai'ko Jauntzari erantsirik Araba'rako eta Bizkai'rako bere ordezkaritza: «tenentia».

-Amaikagarren mendeko Gipuzkoa'ren izenak agertu ondorean, ez dut uste ortik aurreko edestian gure Eusko-Ķaterri au nola izan dan deitua, esan bearrik izango dugunik. Geienetan IPUZKOA esan oi zaio. Alare izan ditu gaitzizen bitxiak YSPUCIA, Konpostela'ko Edesti-Liburuan, diotenez. («Diotenez»; ez bait dut liburu ori ikustatzeko adiontasunik izan). Liburu ori, 1119'koa da.

Ez dut egiztatu aal izan, Iratxe'ko larrukien artean 1135'eko batean agertzen omen dan IPUĶA egiazkoa dan edo ez.

Abizen bezala Gipuzkoa'n ezagunak dira LIPUZKOA, LEPUZKOA, LEPUZKOANO, IPUZKOA eta IPUZ. IPUTXA, Laburdi'ko abizena da; eta, LEPUZAIN, Napparroa'ren erdi-erdian dagoan Oloriz'en auzo bat.

LEPUZKOA, izen laguntzaille edo adjetibo lez, Mendoza'ko Eneko Loperena Santillana'ko Markesak aipatzen digu XV mendearen asieran. Ona zer dion ain ezagunak diran bere «Serranillas»-etako VIII'ean:

«De Vitoria me partía	Entre Gaona y Salvatierra
un día d'esta semana,	en ese valle arbolado
por me pasar a Alegría	donde s'aparta la sierra
do vi moza LEPUZCANA.	la vi guardando ganado».

Neska ura ordea ez zan gipuzkoarra, gipuzuritarra baizik. Antxe bertan bait zegoan, gaurko Gauna eta orduango Gaona'tik ez urruti, GIPUZURI izeneko erri bat. Gaur ez zaio erri zaar ari bere parrokia izan zuan eliza besterik gelditzen: Gipuzuri'ko Elisabete Deunaren elizatxoa. Bada gaur izen au duan Kofradi bat ere.

Izen ezberdin asko izan zituan Erri onek: GUIPUSTURI eta GUIPUZTURI esaten zaio 1634'ean Kofradiko liburuetan. LIPUSTURI 1634'ean. GUIPUSZURI 1766'ean, GUIPUZURI XVIII mendean, eta gaur Kofradiaren izena, GUIPUTXURI duzu.

Erri oni-buruz erdiaroko dokumenturik ez dugu, baiñan Santillana'ko Markesak adierazten digunez, XV mendea LEPUZURI esaten zitzaion.

Orrenbeste izenen artean, gipuzkoarrek, nola deitu izan ote diote beren lurraldeari? IPUZKOA seguruaski erdiaroan. Ez ote, IPUSKUA? Ez dut uste. Bien arteko beste zerbait baizik, «OA» bikotea, batera «diptongo»-lez esaten danean, «K»-ren atzetik ez «O» ez «U», bien arteko zerbait baizik, agoskatzen bait dugu gipuzkoarrok.

Eta IPUZKOA zaarari, noiz aurre-erantsi ote zitzaion gaurko GUIPUZKOA'ren «G» ori? Ez dakit. Izkutuki argitara-gaitza bait dugu «G» orren azalpena. XVI mendean Guipuzkoa'ri LEPUZKOA

eta LIPUZKOA ere esan bait zitzaion. Ikus adibidez Garibai'ren idazkietan.

«L» orren bidez igaro ote da IPUZKOA, astiro-astiro, GUIPUZKOA izatera? Ez beintzat, itxurazkoa izango litzakeala dirudianez, «H»aren bitartez, Gipuzkoa ez bait da beñere HIPUZKOA, «H»z orbandurik idatzia izan.

Apika badan euskeraren itz bat bakarra noiz edo bein «H»z zikindua izan ez dana. Itz bakan oietatik bat, GIPUZKOA duzu ain zuzen.

(«H»ari izki zikiñi esaten diodanean ez naiz Iparraldean agoskatzen dan tokietako «H»az ari. Bearrezkoa dana ez bait da zikiña. Bai ordea, gure arteko «H»a bezala, alperrikakoa izateaz gaiñera, euskerari kalte aundia dagiona).

Baiñan IPUZKOA zarrari, bere aurreko «L» eta «G» oiek nola sortu zitzaizkion galdetzen ba' didazu, ezin izango dizut erantzun. KIPUTZ esaten die Oñate'ko euskerak gipuzkoarrei. Baiñan Gipuzkoa'ri ez zaion beñera KIPUZKOA esan.

Iru itz bakarrik ditu gipuzkerak «IPU»z asten diranak eta bat bakarra, «IPO»z asten dena. Ez, du «IBO»z edo «IBU»z asten danik. (Beste euskalkiek ere ez dituzte iru baiño askoz geiago «ipo», «ibo», «ibu»z asitako itzak). Eta ona gauzarik arrigarriena: Lau era oietara asten diran itzei, ez zaiela sekulan ez «G»rik, ez «L»rik, ez «K»rik, ez «H»rik sekulan aurre-ipiñi! Ezta Iparraldean ere! Ala, «ipurdi», adibidez, ez da beñere, izan «gipurdi», «lipurdi», «kipurdi» edo «hipurdi».

IPUZKOA nola arraio biurtu zan ba aurrena LIPUZKOA (orrela deitu zion XIII mendean Gaztela'ko X Albontsa Jakintsuak ere), eta geroago nola azkenean biurtu dan GIPUZKOA?

Ea zuk, irakurle, izkutuki ori argitzen diguzun!

Eta, bitartean, zure izparren zai, datorren zenbakira arte.

Latiegi'tar Bixente